

Simon Urtasun
Auritz, Nafarroa (1882)

Aurkibidea

Biografia

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. Erretorea zen eta 31 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Euskalkia: hegoaldeko goi-nafarrera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.239

Zintak

AUR-003

- **Proiektua:** Rudolf Trebitsch-en euskal grabazioak (1913)
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Data:** 1913-09-01
- **Iraupena:** 3 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Emalea:** OAW

Pasarteak

1. Orreagako Ama Birjina

- **Erref:** AUR-003/001
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:11

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Orreagan Ama Birjina agertu zen eta inguruko herriek debozio handia dute Ama Birjinarekiko. Nafarroatik eta mugaz bestaldetik jende asko batzen da bertan Ama Birjina agertu zeneko urteurrenean. Ospakizun horien berri eta herri bakoitzeko herritarrek duten parte hartzearen berri ematen digu.</p>

Transkripzioa

Orreagan agertu ze Ama Birjina, orai duela anitz urte. Andik onata, Orreako inguruko erriak debozio aundia dute Ama Birjina oni. Urte oro, Ama Birjina sortu zen egunean iten da Orreako elizan funzone aundi bat. Ala Franziatik nola Nafarroatik joaten dire Orreara milaka jendeak ikustera Ama Birjina eder ura eta eskatzera bear tuzten graziak, ala gorputzeko nola arimako. Maiatzeko ilabetean Salvatore ondoko astean iten dire bortz egunez prozozioak Orreako Ama Birjinari Elizara. Astelenean joaten da Aurizko erria. Asteartean Luzaidekoa. Asteazkenean Artzibartarrak. Ortzegunean Aurizberrikoak eta orzilarean Erroibartarrak. Artzibarko eta Erroibarko prozozioan joaten dire, guti gorabera, egun mutil, gurutze aundi batzurekin bizkarrean. Zenbait errietaik bada Orreara bortz eta sei ordu, eta alare bide guzian erematen tuzte erran tugun gurutze oek. Ori eztela asko joaten dire errezatzen bide guztian. Jende oei galditen badaegu: Zertara zaazte gurutze aundi oekin eta urtutzik alako bide luzean? Errain dute: Goazi Orreako Ama Birjinaingatik, arras maite baitugu, eta etzaigu sobera iduritzen iten dugun penitentzia, alako Ama maitea ikusteatik eta bere aitzinean egoteatik. Orreako elizan, prozozioak sartzen direlaik [salbea kantatzen da].

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-02-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com